

IKASTETXEAREN URTEKO PLANGINTZA

BERE EGITE, BURUTZE ETA JARRAIPENERAKO ORIENTABIDEAK.
ORIENTABIDEEN JUSTIFIKAZIOA.

—

**IKASTETXEAREN URTEKO PLANGINTZA
BERE EGITE, BURUTZE ETA JARRAIPENERAKO ORIENTABIDEAK.
ORIENTABIDEEN JUSTIFIKAZIOA.**

URTEKO PLANGINTZA ETA MEMORIA, era labur eta zehatzean egingo dira, ikastetxerako praktikoak izango direnak. S.I.T.E.-k erabili ahal izango ditu egokitzen jotzen dituen azterketa eta ebaluaketarako, ikastetxeak bisitatzen dituenean. Aurreko ikasturtearen memoria eta 96/97 ikasturterako Plangintza irailak 30ean baino lehenago eginak izan behar dira.

IUP (PAC) oinarrizko tresna da ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendurako, ikasturte bat aurrean dugularik, lan-proiektu egituratu, ahalgarri, egokitu ... bat da jarritako helburuak bete ahal izateko. Errealista, argia, finkoa izan behar du baina ez, ordea, zurruna, ikastetxearen alderdi guztiak hartu behar ditu eta ebaluagarria izan behar du.

Urtero berriztatu behar den epe motz/ ertainerako plangintza mota bat da eta bere edukina kurtso bukaeran ebaluatzeko eta azken memorian transkribatzeko modukoa izan dadin egituratu behar da.

Tresna-izaera du, proposamen zehatz eta espezifikoa da, ikusitako behar eta jokatzeko aukera batzuei dagokiena, konpromezu kolektiboa eta jarduera-lerro amankomuna suposatzen ditu, batez ere irakaslegoari begira, ikastetxean dauden sektore ezberdinen parte-hartzea arautzeko ere baliagarria den arren. Eskola-elkarte osoa hartzen du, OMR-en oneritzia duenez.

Agiri irekia, malgua, berrikusgarria eta aldagarria da, berau egiteko honako baldintzak hartu behar dira kontuan:

- **Etengabeko berrikuspena:** tresna malgu eta irekia den aldetik etengabe berrikusi ahal izango da, bere erabilgarritasuna bermatzen duten aldaketak sartuz, agiri burkratiko huts bihur ez dadin.
- **Parte-hartzea eta adostasuna:** adosturiko proposamen batera iritsi beharko da, zeinetan irakaslegoak lehentasunik handiena hartuko duen.
- **Koordinaketa:** PEC, PCC eta ROF-ekiko koherentzia egiazkoa izan behar da eta egite, burutze eta ebaluaketa-prozesu osoan zehar koherentzia horren bermeak eman behar dira.

Helmugak ekintza zehatz, argi eta ebaluagarrien bidez zehaztu behar dira, lorpen batzuen erdiespena ikusteko modukoa izan dadin. Ildo honi jarraikiz Ikastetxearen Urteko Plangintzak eta dagokion Memoriak antolaketan eraginkortasun eta eragingarritasuna lortzea dute helburu eta ondorioz parteharzaile guztien poztasun-mailak areagotu.

Helburu bakoitza definitzeko kudeaketa-plangintza honen eragingarritasunean beharrezkoa da:

Itzaroten den azken emaitza era zehatz eta ebaluagarrian deskribatu.

—

- Aurrera eraman behar diren ekintza konkretuak zehaztu eta baita burutu behar diren baldintzak ere, aurreikusitako emaitza lortzen ahalbidetzeko, hain zuzen ere.
- Ekintza bakoitzean parte hartu behar duten pertsonak izendatu eta baita emaitzaren azken lorpenaren arduraduna ere.
- Programaturiko ekintza bakoitzaren garapenerako epeak banatu eta jarri. Ekintza ezberdinen elkarmenpekotasuna eta aldi berean ekintza-esparru ezberdinetan pertsona eta arduradunen aldiberekotasuna kontuan hartu behar dira.

IKASTETXEAREN URTEKO PLANGINTZA BATEN ESKEMA.

ATALAK	PROPOSAMENEN ZEHAZKETA	PARTEHARTZE ETA ERABAKIGU-NEAK	ERREFEREN-TZIAK
Ikastetxearen gaurko egoeraren diagnostikoa. ESPARRUAK: Ikastetxea Zikloa Ikasgela	Behar eta asmoen zehazketa.	Gune bakoitzak zehazten du: - lehentasun irizpideak - sailkapena - denboralizatzea	Memoria.
HELBURUEN AUKERAKETA - Errealak - Bideragarriak - Esparru bakoitzean onartuak.	Zer lortu nahi dugu kurtsu honetan?	OMR	OMR-EN PROPOSAMENAK.
EGITEKO EKINTZAK - Aktibitateak - Formazio eta berrikuntzarako proiektu orokorrak.	Zer egin behar dugu nahi duguna lortzeko?	ZUZENDARITZA TALDEA	KLAUSTROAREN PROPOSAMENA
BALIABIDEEN ANTOLAKETA - Organo eta pertsona bakoitzaren eginkizunak. - Dagoen denboraren banaketa - Tokiak eman. - Banaketa ekonomikoa.	Nola funtzionatuko dugu behar duguna egiteko?	KLAUSTROA CCP	CCP-REN PROPOSAMENA
EBALUAKETA Jarritako helburu bakoitzarena: - Erabiltzeko tresnak - Partehartzaileak - Entzulegoak - Uneak	Zer prozesu eta emaitzak sortu nahi ditugu?	SAILA ZIKLO TALDEA	ZIKLO BAKOI-TZAREN PRO-POSAMENA ESKOLA EMAITZAK

Helburuen aukeraketan errealismoan oinarrituriko irizpideak aplikatu behar dira eta baita erabakitze-prozesu guztian esparru bakoitzean inplikaturikoen parte-hartzea bermatu ere. Demokratikoki kudeaturiko parte-hartzea hau funtsezko oinarria da kolektiboko portaideen inplikazio egokia lortzeko.

Aurrekoaren ondorioz, parte-hartze esparru bakoitzak bere esparruari dagozkion helburu batzuen plangintza eta garapena bere gain hartzea ere bermatu behar da.

Adibide moduan esparru ezberdinen helburu posible batzuk aipatzen ditugu:

- Aurreko ikasturtearen memoriaren arabera Lehen Mailako Hezkuntzako 1.Zikloa bukatu duten ikasleek ulermen-irakurketan huts nabariak agertzen dituztela ikusirik, honako asmoak jartzen dizkiogu geure buruari ikasturte honi begira: huts hauek eragiten dituzten arrazoiak aztertu eta egoera hau gainditzeko behar diren aldaketak martxan jarri.
- Lehen Mailako Hezkuntzako 3. Zikloan Matematiketan izan diren emaitza kaskarren arrazoiak aztertu (memorian jasotako datuen arabera) eta behar diren aldaketak finkatu Matematiketan lorturiko emaitzak beste jakintzagaietakoak bezalakoak izan daitezen.
- Inguruaren Ezagutza delakoaren garapen-prozesu linealean ikusi diren hutsak gainditu eta baita ziklo ezberdinetan alderdi batzuen errepikapenak ere.
- Irakasle guztien artean akordioak finkatu, etxean ikasleek egin ditzaketen lanen irizpideak, ezaugarriak eta gutxi gorabeherako iraupen-denborak zehazteko.
- Ikasle-talde zehatz batean eragina duten iraskale guztiek etxean ikasleek egin ditzaketen lanak koordinatu.
- Jolasaldietan ikasleen jokabidean antzematen den gehiegizko erasokortasunaren aurrean, irakasleen jokaerari begira prozedura eta irizpide amankomunak finkatu.
- Eskola, auzo eta ingurunearen arteko lankidetzak bultzatzen duten mekanismoak sortu.
- Eskolak sormen-gaitasuna garatzeko ikaslegoari eskaintzen dizkion aukerak aztertu eta ondorioak atera.
- Ikastetxean egiten den energia-kontsumoari begira gure ohiturak gai honetan aztertu eta ondorioak atera.
- O.M.R.-en familiek dituzten ordezkariak ordezkatu guztiekin komunikazioa errazteko mekanismoak finkatu.
- Zikloko koordinatzailearen eginkizunak berrikusi eta ondorio batzuetara iritsi.

Azken finean, Ikastetxearen Urteko Plangintza ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendua hobetzeko plangintza gisa ulertu behar da. Testuinguru honetan ikastetxerako bere benetako balio eta zentzua eskuratzen ditu.

Urteko Planaren barne eta kanpo ebaluaketarako ekintza osagarria oinarritzko osagaia dugu zentruen kalitatearen hobekuntza bultzatzeko.

PROPOSATZEN DEN LAN-METODOLOGIA.

I.U.P.-en egite partehartzailea eskola-elkartearen osatzaile guztien eskuhartzean datza (familiak, irakasle, ikasle, ...), bere organoen bitartez segurtatua (zikloak, zuzendaritza-taldea, CCP, OMR, GE, etab) eta baita bakarka ere.

Talde-lana eta talde txikietan egiten dena funtsezkoa da eta eskola-elkarte osoaren partaidetza ikusten duenez, adostutako proposamen batera heldu behar da, zeinetan lehentasunik handiena irakasle-taldeak izango duelarik. Honek irakaslegoari prestaketa tekniko ona eta giza-kualitate zehatz batzuk eskatzen dizkio, arduren onarpenarekin batera.

Jarrera eta trebetasun batzuk garatu behar dira, honako lanak ahalbidetuko dituztenak: Ekintzen autoazterketa, plangintza, programakuntza, jarraipena, koordinazioa, kontrola eta ebaluapena. Honekin ikastetxearen autonomiari eta finkapenari laguntzen zaie.

Proposamen honek orientazio-izaera du eta IUP egin ondoren beharrezkoa litzateke bere baliagarritasuna ebaluatzea, beste ikastetxe batzuetan erabili ahal izateko behar diren aldaketak sortzeko asmoz.

IUP-en egite eskuhartzaileak metodologia espezifikoak eskatzen du, gaingiroki horrela labur genezakeena.:

PLANIFIKAZIOA

1. IUP-en egitea koordinatuko duen arduraduna Zuzendaritza Taldea da. Hala ere, beste pertsona batzuek ere eskuorde lezake (Pedagogiarako kontrol batzordea, beste batzuk...). Bere eginkizuna elaborazio-prozesua dinamizatzea litzateke (materialak prestatu, taldeei informazioa eman, ekarpenak jaso, zatikako sintesiak egin, adostu, azken idazketa egin etab...).
2. Urteko Plangintzaren edukinaren eskema burutu.
3. Parte hartu behar duten taldeak erabaki: Zuzendaritza-Taldea, etapak/ zikloak, OMR, Gurasoen Elkartea, Ikasle (5. eta 6. ikasmak ?).
4. Talde bakoitzari dagokion funtzio eta eginkizunak zehaztu.
5. Eskuhartze-prozesua osatzen duten tresnak sortu.
6. Elaborazio-egutegi batean ekintza bakoitzeko denborak konkretatu.

ELABORAZIOA

1. Talde bakoitzak bere beharren azterketa egiten du, ikasturterako bere nahiak eta asmoak azaltzen ditu I. eta II. eranskinak.
2. Laburpen bat egiten da ekarpen guztiak jasoz. III. eranskina.
3. Ekarpenak taldeei itzultzen zaizkie, ezagutu, aztertu eta lehentasunak finkatu dituzten (Taldea Nominalaren Teknika). IV. eranskina.

4. Talde guztiek egindako proposamenetan oinarrituz Zuzendaritza-Taldeak helburuak idatziz jartzen ditu. V . eranskina.
5. Etapa / ziklo bakoitzari jakinarazten dizkio eta hauek dagokien plangintza egiten dute.
6. Guztien aportazioak harmonizatuz, ikastetxearen plangintza orokorra osatzen da.
7. Partehartzaileei jakinarazten zaie ikuspegi orokorra izan dezaten eta behar izanez gero oharrak egin ditzaten.

AZKEN IDAZKETA

1. Azken oharrak jaso ondoren, irakaslego osoak ezagutzen duela, dagokion zereginetan parte hartu duela eta beraz, hau proiektu kolektibotzat jo daitekeela jakinean egonik, idazketari ekiten zaio, labur, arin eta argia izan dadin saiatur.

ONARPENA

1. Nahiko denborarekin egindako IUP-en kopiak OMR-en partaideei emango zaizkie, irakurtzeko eta aztertzeko denbora izan dezaten.
2. Behar izanez gero, edo OMR-ek eskatzen badu, bere osatzaileekin irakurketa iruzkindua egin daiteke. Irakurketa hau ez litzateke inolaz ere egingo onarpen-saioan berean baizik eta OMR-en partaideek hausnartzeko denbora eduki behar dute IUP-en onarpena gauzatu baino lehen.

HEDAPENA

1. Definitzen da eta eskola-elkarteari Urteko Plangintzara iristeko prozedura adierazten zaio, haren eskuetan dagoelarik.

IUP-en EDUKINA

a / Irakaskuntza-ihardueren egitaraua (Irakaskuntza mailan egingo diren ekintza nagusiak eta helburuak isladatu behar ditu).

1. Ikastetxearen gaurko egoeraren diagnostikoa.
2. ikasturtean zehar lortu behar diren helburuak.
3. Ikastetxearen funtzionamendu orokorrari dagozkion alderdiak.
 - Tutoritzen banaketa.
 - Ordutegiak.
 - Esklusiben antolaketa.
 - Ikaslegoari eman behar zaizkion laguntza eta errefortzuaren antolaketa.
 - Organo kolegiatu ezberdinen osatzaileak.
 - Pertsona bakarreko karguak.
4. Etapa eta zikloko lan-plangintzak, ikasgelari dagozkion programaketak egiteko oinarria izango direnak. VI. eranskina.
5. Organo kolegiatu ezberdinen lan-plangintzak. VI. eranskina.
6. Irakaslegoaren, zikloen, lan-taldeen, sailen... koordinazio-plangintza.
7. Berrikuntzarako proiektuak (baleude). VII. eranskina.
8. Ikastetxean formazio-proiektuak eta lan-ordutegian ikastaroetara joan.
9. Eskola-elkarteari informazioa emateko plangintza. VIII. eranskina.

b / Ekintza osagarrien eta eskolaz kanpokoaren egitaraua.

1. Osagarriak. IX. eranskina.
2. Eskolaz kanpokoak.
3. Eskola-zerbitzuak: jantokia, garraioa etab.

c / Kudeaketa-programa.

Gastuaren banaketa eta lehentasunerako irizpideak. Aurreikuspenak. X. eranskina.

d / IUP-en eta ikas tetxearen funtzionamenduaren ebaluaketa.

e / OMR-en onartze-agiria.

Ikastetxea:

Udalerrria:

Helbidea, tfnoa:

Lurraldea:

URTEKO PLANA

Ikasturtea:

AURKIBIDEA

Sarrera. justifikazioa.

a/ Irakaskuntza-ekintzen egitaraua.

1. Ikasturtearen hasierako egoeraren diagnostikoa. III. eranskina.
2. ikasturtean lortu behar diren helburuak. V. eranskina.
3. Ikastetxearen funtzionamendu orokorrari dagozkion alderdiak.
 - 3.1 Tutoritzen banaketa.
 - 3.2. Ordutegiak.
 - 3.3. Esklusiben antolaketa.
 - 3.4. Ikaslegoari ematen zaizkion laguntza eta errefortzuaren antolaketa.
 - 3.5. Organo kolegiatu ezberdinen osatzaileak.
 - 3.6. Pertsona bakarreko karguak.
4. Etapako, zikloko lan-plangintzak, ikasgelari dagozkion programaketak egiteko oinarri izango direnak. VI. eranskina.
5. Organo kolegiatu ezberdinen lan-plangintzak. VI. eranskina.
6. Irakaslegoaren, zikloen, lan-taldeen, sailen...koordinazio-plangintza.
7. Berrikuntzarako proiektuak (baleude). VII. eranskina.
8. Ikastetxean formazio-proiektuak eta lan-ordutegian ikastaroetara joan.
9. Eskola-elkarteari komunikazio eta informazioa emateko plangintza.

b / ekintza osagarrien eta eskolaz-kanpokoaren egitaraua.

1. Osagarriak. X. eranskina.
2. Eskolazkanpokoak.
3. Eskola-zerbitzuak: jantokia, garraioa etab.

c / kudeaketa-programa.

Gastuaren lehentasun eta banaketarako irizpideak. Aurreikuspenak. XI. eranskina.

d/ IUP-en eta ikastetxearen funtzionamenduaren ebaluaketa.XII. eranskina.

e / OMR-en onartze-agiria.

Eranskinak

SARRERA. JUSTIFIKAZIOA.

Beraren ezaugarri zehatzei buruz irakasleoa, ikasleoa eta familiak, batez ere, informatzeko asmoz idazten da.

Ondoko atalak sar ditzake:

Egiten den borondatea.

Nola lotzen duen eskola-elkarte osoa bere egitean parte hartu duenez (Nork ?) eta OMR-en oniritzia jaso ondoren.

Nola dagoen oinarritua ikastetxearen azterketan eta eskola- elkartearen behar eta itxaropenetan.

Erabilgarritasuna: ikastetxearen antolaketa osorako funtsezko tresna gisa eta eskola-elkartea eta administrazioa informatzeko agiri baliagarria izan.

Jarraitu den egite-prozesua eta segimenduan eta ebaluaketan eman den jarraipena, memorian isladatuko dena.

Beste batzuk.

“Eginkizuna, planifikatu eta gero, egileei nahi duten eran egiten utzi behar zaie, beti jarritako helburuak lortuz doazen heinean.” (R. LIKERT. 1969)

I. Irakaskuntza-ihardueren plangintza.

1. IKASTURTEAREN HASIERAKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA.

Atal honetan IUP egin duten talde ezberdinen (OMR, GE, DE, CCP, Zikloak...) ekarpenen laburpen bat jasotzen da, abiapuntua aurreko memorian eta guztien behar eta itxaropenetan oinarritzeko, argia izan dadin eta plangintza eraginkorragoa posible egin dezan. I., II. eta III. eranskinak.

2. HELBURU OROKORRAK.

..... **IKASTURTEAN LORTZEKO HELBURUAK.**

Helburuen kopuru mugatu bat (taldeek emandako lehentasunaren ondorio direnak) lehen mailakotzat jotzen dira. Honek ez du esan nahi lortu behar diren bakarrak direnik, ikasturte honetan arreta berezia emango zaiela eta beren lorpena ebaluatuko dela baizik. Ikasturtea planifikatzean ikastetxearen iharduera guztia helburu hauetan oinarrituko da.

3. FUNTZIONAMENDU OROKORRARI DAGOZKION ALDEAK.

EED osatzen duten fitxak jasotzen dira.

Interesgarri eta argigarria litzateke haren egitean jarraitu diren irizpideak gehitzea.

4. ETAPA / ZIKLOKO LAN-PLANGINTZAK, IKASGELARI DAGOZKION PROGRAMAZIOAK EGITEKO OINARRIA IZANGO DIRENAK.

Helburu orokorrak etapa / ziklora egokitzeaz gain, inportantea da PCC-ren alderdien zehaztapenak jasotzea, ikasgela-programazioak egiteko irizpide amankomun gisa erabil daitezkeenak.

5. ORGANO KOLEGIATUEN LAN-PLANGINTZAK.

Organo kolegiatu bakoitzak, ikasturterako helburu orokorrak erreferentziatzen hartuz, bere lan-plangintza egingo du. VI. eranskina.

6. IRAKASLEGOAREN KOORDINAZIO-PLANA: ZIKLOAK, LAN-TALDEAK,SAILAK...

7. BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK.

Planifikaturiko aldaketa edo esperimendazioa suposatzen duten proiektuak, berrikuntza-deialdiari erantzun ala ez.

Beraren aipamen labur bat da, eranskin gisa gainera daitekeen planifikazio eta programaketa sakonago bat alde batera utzita. VII. eranskina.

8. IRAKASLEGOAREN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN PLANGINTZA.

Ikastetxean prestakuntza-proiektuak eta lan-ordutegian ikastaroetara joan.

IUP-en helburu orokorrak eta berrikuntzarako egitasmoak erreferentziatzen hartuz, biek in erlazioa duten irakasle goaren prestakuntzarako beharrak ikusten dira. Behar hauek lehen mailakoak lirateke prestakuntza-plangintza zehazteko orduan.

9. ESKOLA-ELKARTEA INFORMATZEKO ETA KOMUNIKATZEKO PLANA.

Komunikazio arin eta norabide anitzekoa (beheranzko / goranzko bertikala eta horizontala) lehen pauso bat da eskola-elkartearen parte-hartzea bultzatzeko.

Horregatik beharrezkoa da bitartekoak eta tresnak zehaztea informazio-prozesuak eraginkorrak izan daitezen.

Irakasle goa, ikasle goa eta familiak. Prozesuak, bideak, arduradunak etab konkretatu.

Bertara iritsi eta ikastetxetik ateratzen den informazioa. Aukeraketa eta komunikazioa. IX. eranskina.

II. Ekintza osagarrien programa.

Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak PEC-ekin, PCC-rekin eta IUP-ekin koherenteak izan behar dira eta baita beren garapen zuzenerako baliagarriak ere. Horregatik aipaturiko ekintzen planifikazio / programazioa zorrotz izan eta haietan oinarrituta egon behar da. X. eranskina.

Eskola-zerbitzuak, jantokia, liburutegia, garraioa... esparru hezitzaile garrantzitsuak dira, beren izaera laguntzailea alde batera utzita, eta horrela kontsideratu behar dira eta baita IUP-en osagai gisa sartu ere.

III. Kudeaketa-programa.

Baliabide ekonomikoen banaketa sarritan izaten da adierazlerik argiena ikastetxearen izkutuko curriculumaren helburuak ikusteko, ageriko curriculumari kontrajarriz. (Diruaren erabilerak benetako interesak erakusten ditu).

Horregatik gastuetarako irizpideak IUP-en helburuetan oinarrituta izatea beharrezkoa da.

Autonomia ekonomiko-finantzarioa duten ikastetxeek finkaturiko prozedura jarraituko dute. Edonola ere, izan daitezkeen diru-sarrerren, gastuen...eta abarren aurrekontuak egitea komeni da. XI.eranskina.

IV. IUP-en eta ikastetxearen funtzionamenduaren ebaluaketa.

IUP-en burutzeari buruzko gogoeta eta azterketa ahalik eta erarik partehartzaileenean egitea ahalbidetu behar da eta horretarako kurtsoaren hasieran jarraituko den prozesua zehaztuko da.

1. Zuzendaritza Taldeak egin dezake edo bestela, eskola-elkartearen estamendu ezberdinetako pertsonak berariaz sortutako batzordeak.
2. Definitu:
 - a/ Irizpideak, helburua eta xedea, beharrezko informazioa (ebaluaketa-saioen emaitzak, galdetegiak, behapena...), informazioaren beraren jasotze-tresnak....
 - b / Informazioaren tratamendua (Nortzuek, nola eta noiz aztertuko den).
 - c/ OMR informatzeko eta Memoria egiteko baliagarriak diren ondorioak jaso.
3. Kurtsoan zehar hiru aldiz behintzat OMR informatu eta ikastetxearen ihardueraren hausnarketa eta azterketa bultzatu. XI. eranskina.

I. ERANSKINA

Ikastetxea:

TALDEA:

(OG. G.E. Zuzendaritza Taldea. Etapa/Ziklo.)

..... kurtsoko oroitidazkia irakurri eta aztertu ondoren	antzematen da funtzionamendua izan dela:
Egokitua.:	Zergatiak:
Hobetu beharrezkoa:	Zergatiak:

Horregaitik, kurtsoko plangintza egiterakoan kontutan izan behar genuke:

- 1.
- 2.
- n.

1. Kurtso honetan, beste zer beharrei garrantzitsua ikusten duzu erantzuna ematea?
 - 1
 - 2
 - n
2.kurtsoan zer egitea gustatuko litzaizueke edo egin behar litzateke?
 - 1
 - 2
 - n

II ERANSKINA

Ikastetxea:

Data:

Ikaslegoarentzat galdekizuna

Ikastetxe honetan, zer gauza hobetu behar lirateke?

- 1
- 2
- 3
- 4

Zer gustatuko litzaizuke egitea kurtso honetan?

- 1
- 2
- 3
- 4

Kurtso honetako klaseak antolatzen dituzten irakasleei, zer eskatuko zenieke kontutan izan ditzaten?

- 1
- 2
- 3
- 4

III ERANSKINA

IKASTETXEA:

..... kurtsorako behar eta espektatiben sintesia

Ikastetxearen IHP edo/eta IIParekiko koherentziaren analisia

1.Familiak: OG, GE

2.Irakaslegoa: Zuzendaritza Taldea eta Etapak/zikloak

3. Ikaslegoa

4. Eskola-Elkartearen sintesia

IVERANSKINA

IKASTETXEA:

..... kurtsoko **Helburu Orokorrak Eskola-Elkartearen behar eta nahiak eta Ikastetxearen IHP eta IIPan oinarriturik.**

Taldeen Balorazioa. Garrantzitsuenetik gutxiagora puntuatzen da.(10 proposamen baleude, oinarritzkoenari 10 jartzen zaio eta garrantziaren arabera jarraitzen da.)

PROPOSATZEN DIREN HELBURUAK PUNTUAZIOA	
---	--

--	--

--	--

--	--

--	--

--	--

--	--

--	--

--	--

V ERANSKINA

..... kurtsuan lortu beharreko Helburuak, analisi eta lehentasunez definituak Eskola-Elkartearen osatzen duten talde guztien artean.

1.

2.

3.

4.

5.

N

VI ERANSKINA

..... *kurtsorako Lan-egitasmoa*

Taldea:.....

(Formatu berbera da guztien plangintzarako: Zuzendaritza Taldea, O.G, C.C.P. ,
Etapak/zikloak, ...)

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Baliabideak	Denboralizazio	Ebaluaketa
1.	1.1				
	1.2				
	1.n				
2.	2.1				
	2.2				
	2.n				
3.	3.1				
	3.2				
	3.n				
n.	n.1				
	n.2				

VII ERANSKINA

Berrikuntza Proiektuak. Aipamen laburra.

Proiektuaren plangintza IUPari erantsen zaio.

Tituloa:

Justifikatzen duten beharrak:

Helburuak

Ekintzak

Giza baliabideak, materialak eta funtzionalak

Inplikaturiko irakasleak

Arduraduna

Ikasleak, taldeak, inplikatutakoak

Denboralizazioa

Proiektuaren ebaluaketa

VIII ERANSKINA

Irakasleen prestakuntzarako plan iraunkorra

Ikastetxeetan prestakuntzako proiektuak eta lan orduetako ikastaroetan parte hartzea

*** Prestakuntza iraunkorra laguntzeko barne irizpideak**

*** Eskaintzen informazio prozedurak**

a/ Ikastetxeetan prestakuntzako plana

Justifikatzen duten beharrak

Prestakuntza gaiak

Partaideak

Egutegia

b/ Kanpoko prestakuntza plana

IUPekin loturiko beharren justifikazioa.

Modalitatea: Garatu, Pat, besteak

Irakaslea	gaia	kurtsua	leku	egutegia/ordutegia

IX ERANSKINA

Eskola-elkartea informatzeko plana

Ikasletoa

Irakasletoa

Familiak: Bilera orokorren eta gelako bileren datak irizpideak, egutegia eta bisita ordutegiak, txostenak entregatze, e.a.

Administrazioa

Beste erakundeak

X ERANSKINA

Osagarri eta kanpoko ekintzen plana

Ikastetxeko beste serbitzuak: Jangela, liburutegia, garraioak,..

EKINTZA OSAGARRIAK

“ “ **ESKOLAZ KANPOKOAK**

SERBITZUA:.....

<i>EKINTZA</i>	<i>HELBURUA</i>	<i>ANTOLATZAILEA</i>	<i>ARDURADUNA</i>	<i>HARTZAILEAK</i>	<i>ORDUT.</i> <i>EGUNA/</i> <i>ORDUAK</i>	<i>LEKUA</i>	<i>FINANTZAKETA</i>

XI ERANSKINA

KUDEAKETA PROGRAMA

- 1. FINANTZA BALIABIDEEN BANAKETAREN ERIZPIDEAK**
- 2. KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ARDURADUNA/K**
- 3. SARRERA ITURRIAK**
- 4. SARREREN AURRIKUSPENA**
- 5. KONTROL SISTEMAK. GASTOEN JUSTIFIKAZIOA ETA ERREGISTROA**
- 6. JARRAIPENA. BILERA KOPURUA. DATAK**
- 7. EGIN BEHAR DIREN TXOSTENAK. EDUKINA, NORI INFORMATU...**

XII ERANSKINA

IUPen eta ikastetxearen funtzionamenduaren ebaluaketa.

	<i>ERAGILEAK</i>	<i>DATAK</i>	<i>TRESNAK ETA BEHAR DEN INFORMAZIOA</i>	<i>O.Gri INFORMAZIOA (DATAK)</i>	<i>OHARRAK</i>
<i>1.HIRUILEKO</i>					
<i>2° HIRUILEKO</i>					
<i>3. HIRUILEKO</i>					
<i>OROITIDAZKI</i>					

XIII ERANSKINA

IUP PARTAIDETZAZ EGITEKO PROPOSAMENA

<i>EGUTEGIA</i>	<i>EKINTZAK</i>	<i>ARDURADUNA</i>
<i>Iraila</i> <i>Data</i> <i>Ordutegia</i>	<i>Egite plangintza</i> <i>Egutegia</i> <i>Tresnak eta arauak</i> <i>Idatziz emana</i>	<i>Zuzendaritza taldea</i>
	<i>Oroitidazkiaren analisia</i> <i>Kurtsorako nahiak eta</i> <i>espektatibak</i> <i>Egoeraren ikerketa:</i> <i>baliabideak aukerak</i>	<i>O.G., G.E</i> <i>ZT. CCP Etapak/zikloak</i> <i>Ikaslegoa</i>
	<i>Z.T ak esaniko jarraipideak</i> <i>erabiliz ekarpenak egin.</i>	<i>Berdin</i>
	<i>Idazlana eta sintesia.</i> <i>Ekarpenak komunikatu eta</i> <i>helburutan bihurtu.</i>	<i>Zuzendaritza Taldea</i>
	<i>Helburuak lehenetzi.</i> <i>Lan plangintzak egin</i>	<i>Irakasle taldeak</i>
	<i>Aurkeztutako proposamenak</i> <i>jaso, ikertu eta estabaidatu</i> <i>Behin-betiko proposamenak</i> <i>idatzi.</i> <i>Behin-betiko dokumentoaren</i> <i>aurkezpena.</i>	<i>Zuzendaritza Taldea</i>
	<i>Onarpena</i>	<i>O.G</i>
	<i>Eskola elkarteari eta</i> <i>Hezkuntzako Ikuskaritzari</i> <i>komunikatu.</i>	<i>Zuzendaritza Taldea</i>

XIV ERANSKINA

IUP EGITEKO ORIENTAZIOEN ETA TRESNEN BALORAZIOA

Aurreko oriecntazioak eta tresnak IUP partaidetzaren bidez egitea errazteko funtzioa besterik ez dute.

Hezkuntz Ikuskaritzaren asmoa hau izan arren, beharrezkoa da benetan baliogarria eta ikastetxean erabilgarritasuna duen frogatzea

Horregaitik, irakaslegoaren beharretara egokitzeko eta obetzeko, beharrezkoa da hauek baloratzea eta ekarpenak egitea. Horrela guztion artean ikastetxeko plangintza azkartzea eta erraztea lortuko dugu.

ORIENTAZIOAK.

	1etik 5era baloratu	Oharrak
1. Partaidetza bultzatzen dute		
2. Kontzeptoak argitzen dute		
3. Irakaslegoari jarraipideak ematen diote		
4. Ztaren lana errazten dute.		
5. Irakaslegoaren la errazten dute		

1. OSO BAJOA, 2:BAJOA, 3:NORMALA, 4:ALTOA, 5:OSO ALTOA

Orientazioetan:

Soberan:

Faltan:

Egokitze eta obekuntzarako aholkuak:

TRESNAK (ERANSKINAK)

	1etik 5era baloratu	Oharrak
1 Praktikoak dira		
2. Kontutan izan beharrezko aspektu guztiak jasotzen dituzte?		
3. Irakaslegoaren lana errazten dute?		
4. Zuzendaritza Taldearen lana errazten dute?		

1. OSO BAJOA, 2:BAJOA, 3:NORMALA, 4:ALTOA, 5:OSO ALTOA

Tresnetan:

Soberan:

Faltan:

Egokitze eta obekuntzarako aholkuak: